

# Prentsa oharra

## Nota de prensa



### **UDALAK 50 PINU GAIXO KENDU DITU MIRAMONGO PARKETIK, ETA BERTAKO ESPEZIEEKIN BIRPOPULATUKO DITU**

Parke eta Lorategi Departamentuak Miramon parkeko berrogeita hamar bat pinu moztuko ditu datozen egunetan, eta, ondoren, espezie autoktonoen zuhaitzen bikoitzarekin (100 zuhaitz) birpopulatuko ditu, harizti mixto atlantiko basoko izaera indartuz.

Marisol Garmendia Ekologia zinegotziak adierazi duenez, “udaleko teknikariek ikusi dutenez, Miramon inguruan, Gipuzkoako beste zuhaitz-masa asko bezala, onddoek eragindako gaixotasunak daude, batez ere banda marroia edo pinuen txankroa deiturikoak. Horren ondorioz, parkeko zuhaitz asko hilda edo lehortuta daude, eta izurritea hedatzen ari da, zuhaitz osasuntsu berriei eraginez.”

Hartutako erabakia kaltetutako pinu aleak moztu eta menditik ateratzea da. Aginte Errekako burualdetik Botanikoraino doan eremuan hasiko gara, Lanberrigaina-Erramunene bidearen ondoan. Ibiltarien segurtasuna bermatzeko, bide hori tarte horretan itxiko denez, langileen seinaleak eta argibideak errespetatzeko eskatzen zaie herritarrei.

# Prensa oharra

## Nota de prensa



Lehenengo fase hori martxoan baino lehen hasi eta amaituko da, hegaztien habiak egiteari eta, oro har, basa-bizitzaren ugalketa-garaiari kalterik ez egiteko. Garmendiak adierazi duenez, moztutako eremuak espezie autoktonoen ale bikoitzarekin birpopulatuko dira, basoari harizti misto atlantiko gisa birsortzen laguntzeko. Egurra birrindu ondoren, konposta egiteko eta bigungarrietan edo beste aplikazio batzuetan erabiltzeko ere baliatuko da.